

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak "trotamundosn" bere programa berria abian jarriko du Lizarran

Musika-esperientzia berri hau otsailaren 20, 25, 26, 27 eta 28an eta martxoaren 1ean egingo da

Jueves, 13 de febrero de 2014

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak (NOS) "trotamundosn" bere programa berriari hasiera emango dio datorren asteartean, otsailak 20, otsailaren 20, 25, 26, 27 eta 28an eta martxoaren 1ean egingo den jarduera-programa aberats batekin.

"Trotamundosn" azaroan aurkeztutako "Osnsocial" ekimenaren barnean dago, eta jadanik zenbait programa abian ditu. Izan ere, "museosn" nahiz "universosn"-ek ere hilabete honetan beren lehen esperientzia pilotua egingo dute bigarren hezkuntzako institutuekin Huarteko Arte Garaikidearen Zentroan eta Iruñeko Planetarioan.

Programa gaur goizean aurkeztu dute Kulturako zuzendari nagusi Ana Zabalegui-k; orkestrako zuzendari-laguntzaile Cristóbal Soler-ek; Pablo Sarasate fundazioko lehendakariorde M^a Jesús Artai-ek eta Lizarrak alkate María Begoña Ganuza-k.

Agerraldi horretan baieztatu denez, NOSak Nafarroako hainbat udalerritara zabalduko den kultur esperientzia berri bat eskainiko du astebetez, musika publiko guztiei hurbilduko die eta orkestrako musikariak herritarrekin harremanetan jarriko ditu. Lizarrako bere programa osatzeko, NOSak hogeita bat jarduera antolatu ditu Egako hiriko hamabost bat erakunderekin elkarlanean; jarduera horietan, besteak beste, alderdi pedagogikoak eta mota askotako musika-emanaldiak izango dira.

Zehazki, NOSak honako hauen laguntza izango du: Lizarrako Udala, García Orcoyen Ospitaleko Boluntarioria Unitatea, Santo Domingo Egoitza, San Jerónimo Egoitza, Julián Romano Musika Eskola, Andrés Beraza Dantza Eskola, María Vicuña Gazteen Etxea, Ereintza Abesbatza, Yerri Jazz Band, ANFAS Lizarra, Estella-Lizarra Merkatarien Elkarte, Kilkarrak Antzerki Tailerra, Mater Dei Ikastetxea, Santa Ana Ikastetxea, Remontival Ikastetxea, Lizarra Ikastola, Gaiteroak eta Dantzariak, Urko Musical eta abar.



Nafarroako Orkestra Sinfonikoak.

Programa

Programaren barnean NOSko bakarlariekin sei saio egingo dira Julian Roman Udal Musika Eskolan, kontzertu bat María Vicuña Gazteen Etxean Andrés Beraza Dantza Eskolaren laguntzarekin, NOSko sokazko boskote batek zaharren bi egoitza bisitatuko ditu, kontzertu bat San Juan Bautista Elizan Ereintza Abesbatzaren laguntzarekin, eta "A través de la Cámara" ("Kameraren bitartez") Programa Didaktikoko bost emanaldi Remontival eta Santa Ana Ikastetxeetan, Lizarra Ikastolan eta Mater Dei Ikastetxean, Ana Hernández musikologoarekin batera.

Gainera, García de Orcoyen Ospitalerako musika-bisita bat sartzen da NOSko biolontxelo-hiruko baten eskutik eta baita programa didaktiko bat ere Kilkarrak Antzerki Tailerrarekin ANFAS Lizarrako erromesen aterpetxean. Ekintza horiek guztiak doan izango dira.

Bi kontzertuk emango diote amaiera bikaina Lizarrako Golem zinema-aretoetan; haietako batek jazz sinfonikoko programa bat izango du Yerri Jazz Band-ek lagunduta eta José Sanchís izango du zuzendari; bigarren kontzertua, berriz, zarzuelarako izango da oso-osorik orkestrako zuzendari-laguntzaile Cristóbal Soler-en zuzendaritzapean.

Bi kontzertuetarako sarrerak otsailaren 14tik salgai daude Golem zinema-aretoetako leihatiletan eta Urko Musical-en, 15 euroan bakoitza. Bi kontzertuak ikus-entzuteko ere 20 euroko abonamendu bat erosteko aukera dago.